



*Euskal Hirigune Elkargoaren egoitzaren aurrean mobilizatu gara gaur, Baionan. Hain zuzen ere, bertan erabakitzeko eta hortarako behar diren tresnak eraikitzeko aldarrikapena Elkargoak ere bere egin behar duela aldarrikatu dugu, bertako negoziazio eremu bat Euskal Herrian sortua izan dadin. Hala, gutun bat helarazi diogu Elkargoko lehendakari Jean Rene Etxegarairi aldarrikapen honekin.*

Hau da Euskal Hirigune Elkargoko lehendakari Jean Rene Etxegarairi igorritako gutuna:

2012tik goiti LAB sindikatuak Bertan Erabaki aldarrikapenaren bidez Euskal Herri mailan falta zizkigun instituzioen falta salatzen zuen. Garaian jadanik 2 aldarrikapen nagusi genituen :

1. Eremu sozio ekonomiko iraunkor bat izaitea.

2. CPL « commission paritaire locale » delakoaren moduko Negoziazio kolektibo eremu bat pribatuko langile guztientzat sortzea.

2014 an LABek bere aldarrikapena funtzio publikoari zabaltzen zuen Euskal Herri mailan CDG « centre de gestion » delako bat eskatuz bertako Lurraldeko funtzio publikoko langilientzat.

Azkenean, 2017 an lan eta gogoeta ezberdinei esker, bai hautetsi eta bai jendarte eta Batera plataformari esker besteak beste Euskal Elkargoa sortu da.

Honen bidez lehen aldiko Ipar Euskal Herriak benetako onarpen administratiboa lortu du.

LAB sindikatua kontziente da Euskal Elkargoak dituen erronkak ugariak eta konplexuak direla, baina uste dugu hori ez dela aitzakia izan behar langileok bertan erabakitzeko galdegiten ditugun tresnak ukatzeko.

Hara zergatik gaur gutun ideki hau Euskal Elkargoari helarazten diogun, lehenbailehen langile guztientzat benetako negoziazio kolektibo eremu bat sortua izan dadin. Legeak ematen duen

parada segituz 2014tik LAB etengabe lanean aritu da pribatuan ari diren langileentzat Elkargoaren barne izango litzatekeen CPL moduko eremu bat sortzeko.

Hori egingarria izaiteko bertako ordezkariak edo errepresentibitatearen zenbakiak behar genituzke eta gutun honen bidez beste behin ere zenbaki horiek ukaiteko egin beharrekoa egitea eskatzen dizuegu.

Bestalde, Lurraldeko funtzio publikoko langileei dagokionez, lehenbaitlehen bertako "CDG" delako baten sorrera beharrezkoa dela iduritzen zaigu. Jakinez gaur egun legeak ez duela hori baliabidetzen edo onartzen, momentuz 50 langile baino gutxiagioko egiturentzat « Comité Technique Paritaire intercommunal » delako bakar bat sortzea eskatzen dizuegu.

LABek departamendu mailan diren eskumen edo konpetentzia sozialak errekuaratzea galdegiten du, hemen lan egiten duten pertsona guztiak bertatik kudeatuak izan daitezten.

Ipar Euskal Herria Elkargoaren bitartez hemen bizi diren 300.000 biztanleak kudeatzeko gai bada, bertako langileak eta hauekin lotuak diren gai tekniko eta administratiboak kudeatzeko ere gai izan beharko litzateke. Horrez gain, hurbileko eta kalitatezko zerbitzu publikoak garatzea helburua izanik, lurraldearen errealitateari egokituak diren berezko formakuntzak bermatu beharko lirateke.

Besterik gabe, jakin ezazue zuen erantzunaren zain izanen girela eta zuekin mintzatzeko edo biltzeko prestutasuna beti hor izanen dela.

—